

Maisu-maistren kidegoan sartzeko deialdia (1156/2018 Ebazpena)

1.go proba: espezialitate berriazko ezagutzen proba (PT)

A zatia: izaera praktikako proba

Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxe publiko batean Pedagogia Terapeutikako irakaslea zara. Eskola hori herri euskaldun batean kokaturik dago, D eredukoa, lerro bakarrekoa, osoa, 9 unitatekoa, eta 170 ikasle matrikulaturik daude. HLU-a osatzen duten 3 kideak hauek dira: orientatzailea, entzumen eta hizkuntzako irakaslea eta PT-a. Eskolan ez dago berriazko egiturarik.

Zure lehen urtea da eskola horretan, eta iraileko lehen astean ondoko gaiari aurre egin behar diezu, betiere **Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziako arautegia** kontutan hartuz. Saia zaitetz erantzun zehatzak ematen.

1. Zuzendariak eskatu dizu HLU-ak egindako memoria aztertu eta lehenbailehen tutoreekin elkarlanean hasteko, ikastetxean laguntza-premia handiak dituzten ikasleak daudelako eta tutoreek PT irakaslearen laguntza teknikoa izugarri estimatzen dutelako.
 - Nola bideratuko zenuke zuzendariaren eskaera? Zer urrats emango zenituzke?
 - HLU-an memoria eta aurreko ikasturteko PT irakaslearen lan koaderno aurkitu dituzu. Zer informazio espero duzu aurkitzea lan koaderno horretan?
2. Ander LH-ko 1.mailako ikaslea da, eta erreferentziako curriculum haur hezkuntzako da. Adimen urritasun arina du eta bizikidetzarako portaera oso desegokiak erakusten ditu: ikaskideak hozkatzen eta jotzen ditu eta noiznahi oihuka hasten da.
 - Tutoreak matematika eta hizkuntza arloetako kurrikuluaren egokitzapen esanguratsu eta zehatzak nahi ditu, ikasturte osorako, eta zuri egokitzapen horien zehaztapena eskatu dizu. Nola bideratuko zenuke tutorearen eskaera hori?
 - Zer egin dezakezu PT bezala, portaera desegoki horien aurrean? Zeintzuk izan daitezke interbentziorako irizpide eta neurri garrantzitsuenak?
3. Maider LH-ko 3. mailan dago. Ebaluazio psikopedagogikoaren arabera ikastearen nahasmendua dauka (dislexia eta diskalkulia), adimen urritasunik ez.
 - Zeintzuk dira berarentzako aurreikusten diren aniztasunaren trataerarako neurriak?
 - Zer neurri hartu beharko dira gelan programazioko helburu eta edukien ebaluazioari buruz?
4. Ane LH-ko 3.mailako ikaslea da. Ebaluazio psikopedagogikoaren arabera adimen gaitasun handiak ditu. Aneren tutorea zure esku-hartzearen zain dago, ikasturte honetako programazioak zehazteko, matematika eta hizkuntzan bereziki.
 - Zeintzuk dira Anerentzako aurreikusten diren aniztasunaren trataerarako neurriak?
 - Nola gauzatuko lirakeke, lankidetzan, neurri horiek?
5. Lucasek 11 urte ditu, Hegoamerikatik etorri berria da, adinez LH-ko 6. maila zegokion baina proba kurrikularrak egin ondoren LH-ko 5.mailako gelan kokaturik dago, gaztelaniaz badaki (euskaraz ez), eta bere erreferentziako curriculum maila Lehen Hezkuntzako 4. maila da.
 - Zeintzuk dira egoera honetako ikasleen ohiko hezkuntza premia bereziak?
 - Zeintzuk dira berarentzako aurreikusten diren aniztasunaren trataerarako neurriak?